



37. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA

37. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Marta Lasa Goñi, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna.
- Mahaikideak: Miren Berasategi Zeberio, Eneko Bidegain Aire, Itxaro Borda, Angel Erro Jimenez, Pantxika Maitia eta Libe Mimenza Castillo.
- Idazkaria: Arantza Aguado Perugarria, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

AZKEN ERABAKIA

Epaimahaiak 2025eko urriaren 14an izendatu zituen zortzi finalistak, sari atal bakoitzeko launa, ondorengoak:

Kazetaritza Sarirako FINALISTAK:

<i>Datuetatik tiraka</i> , Goiena Komunikazio taldearen saioa.
<i>Mendez mende dabilen lanbidea garai berrietara egokitu nahian</i> Argia hedabiderako Jenofa Berhokoirigoinek sorturiko erreportajea.
<i>Ur handitan. Palestina, gatazka amaigabea</i> , Baleukok ETBrentzat ekoiztako ikus-entzunezkoa.
Boiseko Jaialdiari buruz Nagore Arinek Berria hedabiderako sorturiko dokumentala eta kronikak.

Komunikazio Sarirako FINALISTAK:

Zurrunbiloa , Elhuyarrek gazteen osasun mentalari buruz sorturiko proiektua.
ULUA , Ulu Mediak gazteentzat sortutako hedabide digitala.
Erdalduntze makina , GUKA Euskaltzaleen mugimenduak Bilbon eginiko kanpaina.
ON.EUS ataria, ON! Piztu euskara(z) elkarte eta Euskararen Erakunde Publikoak sorturiko proiektua.

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute 2025eko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. 2025eko azaroaren 18an epaimahaiak



egindako bileran, jada aipatutako zortzi finalisten artean, batzuen eta besteen merezimenduei buruz eta saridun izateko egokieraz iritziak azaldu eta eztabaidan jardun ondoren, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:

Kazetaritza saria 2025: *Mendez mende dabilen lanbidea garai berrietara egokitu nahian*, Argia hedabiderako Jenofa Berhokoirigoinek sorturiko erreportajea.

Jenofa Berhokoirigoin garaztar kazetariak etengabe aldatzen doan mundu baten inguruko erreportaje multi-ahostuna eskaintzen digu Argiako orrialdeetan. Aldatzen ari da eta gainera feminizatzen. Beti geldoa eta ohiturazkoa irudikatzen dugun artzaintza du aztergai, molde bizi eta zinez interesgarri batean. Elkarrizketa ezberdinen bidez, lurrik gabeko artzainen mendiko bizipenak, kezkek, plazerrak agertzen dizkigu, ustez ezagutzen dugun -gehienbat idealizatzen duguna- baina funtsean arras ezezagun zaigun artzainen egunerokotasuna partekatzeke. Hizkuntza sotil eta gozo batean dago idatzita artikulua, ez gara galtzen, alderantziz. Bortuetako ofizio batekiko begirada ezberdina bideratzeko baliosa den artikulua.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Komunikazio saria 2025: *ON.EUS* ataria, *ON! Piztu euskara(z)* elkartea eta Euskararen Erakunde Publikoak sorturiko proiektua.

Ipar Euskal Herritik bultzaturik, munduari begira, ongi etorri ON.EUS atari partekatu berrira. Artikuluak, agenda, aholku praktikoak, bideoteka, hiztegiak, lan eskaintzak, podcastak, marrazki bizidunak... euskaraz bizi, euskara ikasi, familian, lantegian edo lagunartean gozatu, euskara erakustera eman nahi duenarentzat webgune honek euskararekin harreman zuzena duten pertsonei laguntza eta baliabideak eskaintzea du xede. Horretarako, eduki praktikoak sortu, bildu eta publiko zabalaren esku ematen ditu. Espazio ezberdinetara murgilduz, euskararen alorrean ari diren eragileen gogoeta, gomendio batzuk atzematen dira, hiztegi telekargagarriak, audio-lexikoak, ahoskeraren oinarriak edota sarean diren itzultzaile automatiko batzuen loturak ere bai. Bideotekan dokumentalak, erreportajeak, tutorialak eta fikzioak begiratzeko loturak daude. Eta eguneroko korapilo txikiak askatzeko gakoak emanak dira ere bai, adituek ekarritako erantzun batzuei esker. ON! Pizten gaituena.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Era berean epaimahaiak ohorezko mugarrria eskaini dio **Jakoba Errekondo Saltsamendiri**, jarraian azaltzen diren merituengatik:

Ohorezko Mugarria: *Jakoba Errekondo Saltsamendi*

Jakoba Errekondok hondar urteotan baratza ezarri du gure bizitzen erdigunean, izan hirian, izan baserri guneetan. Agronomoa eta paisaia antolatzailea da, 64 urteko usurbildar hau. Bera ere laborantzan ari da Aginagako bidean dagoen bere Aranburu izeneko baserrian. Euskadi Irratian hasi agenda, *Bizi baratza* izeneko liburuak, eta azken hilabeteotan, Argiarekin batera datorkigun lau



orrialde plegatuekiko berri-papera. Besteak beste. Irakurle eta zaleengana heltzeko baliabide garaikideak erabiltzen ditu, zuzeneko topaketak Euskal Herri honen zazpi izkinetan, bai eta sare sozialak, poddcastak, Youtube edo Instagram hariak adibidez.

Jakoba Errekondorentzat baratza da gelditzen zaigun” “iraultza-toki” bakarra. Beharbada arrazoia du, Voltaire minberak zioenaren bidetik : “Norberak bere baratza landu behar du”.

Informazio askatasunaren aldeko aldarria

Aurten ere ez da urte gozoa izan prentsako langileentzat. Munduko leku gatazkatsuenetako kazetariak tributo pisua ordaindu dute berriak ahalik hobekien emateko betekizunari. Gazako Zerrenda aipatuko dugu nagusiki, gerla anker horretan, hainbat kazetarik bizia galdu duelako, Ukrainan berdin, bai eta Afrikako konflikto askoren karietara ere. Gatazka askotan, gerla egiten duten gobernanteen helburua izan liteke munduak ez dezan ukan bertan gertatzen diren sarraskien berri.

Adimen artifizialaren erabilpenaren hedatzeak berrien edukia aldatzera ekarriko ote duen galdezka gabiltza. AAK albisteak, edukiak, irudiak sortzen ditu, egiazkoak balira bezala, baina arras faltsuak eta hutsetik asmatuak, klik delakoak eragiteko. Gu ere harrapatzen gaituzte beren alegiazko sinesgarritasunaren atzamarretan. Notizia bakoitzaren aitzinean, mesfidantza lantzera behartuak bezala gara, zuzenki ez dela gehiago berri bat den bezala hartzen ahal. Hor ere badu benetako kazetaritzak zer esana, beren begiak sinetsi ala ez dabilen herritarrei fidagarritasunezko heldulekua eskainita, bihikak burutik bereizten asmatzen lagunduta.

Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hogeita seian.

Mahaiburua:
Marta Lasa Goñi

Mahaikideak:

Miren Berasategi Zeberio

Eneko Bidegain Aire

Itxaro Borda

Angel Erro Jimenez



Pantxika Maitia

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Pantxika Maitia'.

Libe Mimenza Castillo

Idazkaria:
Arantza Aguado Perugorria

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Arantza Aguado Perugorria'.